

Durangoko XXVI Liburu eta Disko Azoka

Irigoiien anaiek 'Luk Berri-a' argitaratu dute disko batean

Garazin jaio diren hainbeste kantarien artean Irigoien anaiek estilo berezia dute. Bigarren LPan, lehenean azaldutako izaera sakondu eta landu dute Frantxua eta Gillomek. Beren burua gehienbat plazako kantaritzat daukatenez estudioko lan polita agertzen digute 'looka' asko aldatu gabe, herriari samur begi keinuka.

L. ETXEHARRETA / BAIONA

Garaziko Ainiza herrikoak dira Idiondotik datozen anaiek, baserri mundu horren nortasun indartsua dakart. Ainizan antolatu 'irri gauetan' edo Garaziko kantari bilaldietan eta hainbat lekutan elkarrekin kantuan ohituak dira. 1987. urtean, Eihera-larreko Euskal Kantu Txapelketan 'Ziminoa Gizondur' kantarekin lehen saria irabazi zuten. Hori izan ere beren lehen diskoaren izenburua.

Bertso idazten, kanta sortzen, hitz jokuak ateratzen, baserriarren arazo larriak irri egiteko moduan aipatzen, guztiz trebatuak dira bi anaiek. Gillome, gaur egun Radio Francen aritzen dena, antzerki idazle joria da eta Garaziko Hiruak Bat taldearekin airez aire azken urte hauetan bide berriak zabaldu ditu. Aurtengo udaberrian 'Don Iban eta Ibai Gorri' bere azken antzerkia liburu modura Elkar argitaletxeak plazaratu zuen. Frantxua Euskal Herriko Laborarien Batasuneko eledun ezaguna da, hortz eta haginez dabilana.

'Luk Berri' izeneko lana 'Lur Berri' kooperatibaren izenaren gogorazle da, baserri munduan kokatzen delako irudi atsegina emanez, askotan inutlkeriaz lotutako 'look' horri. Azalaren diseinua Igartuarenak Euskal Herriko kontresanez bete dakar lantalde baten aurkezle. Ande Duhalderen soinu kudeantzarekin egina izan da diskoa. Jano Larrieu Donazaharrekoa eta Pantxo Etxeberri hazpandarraren lanak dira bi anaiei ondoan Mikel Erramuzpe-ekin batera.

Duhalderen soinulariek musika parte oso modu profesionalen landu dute: Jimmy Arrabit, Mikel Iratzoki, Joxean Goikoetxea eta Anjel Unzuk. Jean Phocas grabatzailearen 'pazientzia' soinu tresna osatzailea izan zuketaren honen zientzia gores-teko ziurraski. Renaud kantariaren 'Germaine' famatuari gure 'Gaxuxa' nazionalaren aurpegia eman diote eta baten batek Ravelen Bolerotik 'Puñeta Pu' ateratzea heretikotzat jo lezake.


HERETIKOTASUNAREN LOOK ATSEGINA Heretikotasun hori bi anaiek preziatu egiten dute. 'Lukink luka' gastronomia gairatzen duen gaia da alabaina. Iparraldean ia Garaziko Joteroek egin zuten urratsa lauzkatzen dute ere 'Jota Heretika' bat

'Luk Berri' izeneko lana 'Lur Berri' kooperatibaren izenaren gogorazle da, baserri munduan kokatzen delako irudi atsegina emanez, askotan inutlkeriaz lotu 'look' horri.

emanez. Protesta sozialaren antza zuen jota horren erabiltzea gustokoa dute biek, gure bazterretan izaten diren zapalkuntzen salatzeke.

Hitz jokuek leku handia daukate bi anaiei umorearen bideetan. Baten batek bi gogoeta egin beharko ditu horrela testuak dauzkan tranpa berezien ulertzeko. Badirudi hemen 'look' honen inguruan beren lan berezia ereman dutela. Gillome Irigoien antzerkietan ia hori nabaria zen. Gogora gaitezen 'euskal apuñak' eta 'eskalapoinak' hitzen arteko pentsa bide sakonaz!

Umorearekin batera sentsibiltate handia bizitzen eta erabiltzen dutela konturatuko da ere diskoaren entzulea. Ainizaren ondoko herrian bizi zen Beñat Galtxetabururi eskainitako omenezko kantua agertzen da diskoan. Duela urte bat zendu zen Garaziko soinulari famatua gogorazten du, honen inguruko maitasuna azalduz. Galtxetaburu, denek izen-



Gillome egun Radio Francen irratilari dena, antzerki idazle joria da. J. GOYA

datzen zuten bezala, umore erabiltzaile handia zen, bereziki bere kontakizunetan. Batek bi anaiei umorearen iturri bat hor ikus lezake, umore serio batetan. Honek ere diskoan diren alde orokorrak azpimarratzen ditu azalak dakarren kaleidoskopioaren moduan.

«Plazerragatik kantatzen dugu»

L.E. / BAIONA

«Gu, ez gara batere profesionalak» dio Frantxuak «zeren guk lehendabizi publikoan kantatzen dugu eta gero bilduma modura diskoa ateratzen dugu». Estudio lana, grabaketarako «lan zaila» dauka Idiondoko laborariak jakina baita nekazaritzak jaten duela denbora gehiena. Orogen gainetik ematen dien plazerragatik kantatzen dutela azpimarratu du Frantxuak eta kantua, bata edo bestearenak edo biak direla dio familiako sinbiosi natural batean.

Sindikismoak zer dakarren kantagintzari? «nahi edo ez agertzen da ene engaiamendua, baina «diskoan ez taula gainean bezainbat». Hitzetan eta musikaren umorea aipatzean aurpegia argitzen zaio azaltzen duelarik 'pastiche' moduko lanen egiteko atsegina. Parodia lan horietan maiz dira bi anaiek.

Radio Francen estudioko txoko batetan bere umorearen trintxeretan Gillomek bere lana agertzean dio «ironia bada baina ez larregi... nahiz jota heretiko bat badugun. Hor uste dut mezua argi den. Ulertu dugunaz Nafarroako jota batzuen funtzioa zen, garai batetan, gertakari sozial batzuen salatzea, poderearen aurka. Jota hori Elizondoren kantatu genuen lehen aldiko».

erein
argitaletxea

Euskal kulturaren zerbitzuan


Tolosa Etorbidea, 107 - 20009 DONOSTIA
Telf.: 21 83 00 - 21 82 11

LIBURUAK

Hontza

Okendo, 4 - 20004 DONOSTIA Tel.: 42 82 89 FAXA: 43 12 56

ELHUYAR 53
ZIENTZIA ETA TEKNIKA



IRIZAR S.K.I. AUTOBUSGINTZAN

ETORKIZUNEN ENERGI ITURRIAK
DOSSIERRA

Ez gelditu
azalean,
zatoz
muinera!

Hilero zure eskutan

BALIZKO

Koldo Izagirreren poesia liburuaren 2. argitalpena

ERROTEN

Espainiako «Premio Nacional de Poesia 1990»ko finalista

ERRESUMA

SUSA literatur argitaldaria. Industrialdea 1-2 Lasarte-Oria. ☎ 37 07 38 - 37 15 45